

“gero gura”

Hitzak: Jon Sarasua
Musika: LIKEN taldea

1)

Harra, harra
Harra geunkan eta
Erre, Erre
gitzen sarri
Irri, irri
Irri egin jakun
Erru, erru
eta guzti
Harro, harro
harro esan geinke
Erro, erro
izen gara
Erro, erro
eta zubi
GORA-GURA GARA
GORA-GURA
GURE GERO-GURA
GARA GU

2)

Hezi, hezi
ginen zulatzeko
Hesi, hesi
mila hesi
Hazi, hazi
hazi beroa
Hazi, hazi
nola hazi?
Heze, heze
gauzka geroak
Hasi, hasi
lehertzen hasi
Hasi, hasi
orain hasi.
GORA-GURA
GARA...

3)

Nortu, nortu
nortu gara baina
Gortu, gortu
zaigu ahoa,
Ortu, ortu
bihurtu behar
Mortu, mortu
utzitakoa
Lortu, lortu
gure lekua
Sortu, sortu
Gerokoa
Sortu, sortu
Gerokoa
GORA-GURA
GARA...

4)

Hitsa, hitsalanaren zama
Hitza, hitza
ez bada bizi
Hotza, hotza
teknologia
Hotsa, hotsa
ez itxungi
Hutsa, hutsa
Beteaz goaz
Hatsa, hatsa
hartzen utzi
Hatsa, hatsa,
hartzen utzi
GORA-GURA
GARA...

Puedes sumarte
vamos despacio
a por espacio
para el tiempo

10 URTE
...11 egun
hartu eta EMUN

ELKARREKIN BIDEA EGITEN... EMUNen 10. urteurrena. Ospakizun ekitaldia

“eguneroko
jira-biran”



bertso
antzerkia

“gero gura”

BABESLEAK:



EMUN
LANA EUSKALDUNTZEKO
KOOPERATIBA



“eguneroko
jira-biran”

bertso
antzerkia

Egilea: Asier Iriondo

1) Teknikaria eta gerentea

(Doinua: “Raindrops keep falling on my head”)

Teknikaria:

PowerPointean txukun-txukun
hamaika orduz lanean dut jardun
eta portatila lagun
ai
ea aurkezpen ona irteten zaigun

Gaur zuzendaritzak bileran
euskara jarri du gaien zerrendan
eta pentsakor eran
ai
bi ordu egin ditut alboko gelan

Koroo:

Teknikari peto
nork du dagoeneko
nahiko lepo
ehun urteko
pisuko harria jasotzeko

Gerentea:

Barka ezazu egiatan
oso une txarra da hau nolatan
estu gauden atakan
ai
arazoak ditugu Shangaiko plantan

Koroo:

Teknikari peto
nork du dagoeneko
nahiko lepo
ehun urteko
pisuko harria jasotzeko

2) Teknikaria eta langilea

(Doinua: “Egunsentia”)

Teknikaria:

Lan bonoa erdaraz
betetzen duzu dana
pixka bat saiatur
langile laztana
idatziz ere euskaraz
egingo duzu lana
zalantzaren bat baduzu
lasai jo niregana

Koroo:

Enpresaz enpresa
lana eta estresa
denbora ez dago salgai
guztiak dauka presa

Ikasi beharko dugu
baztertu ez gaitzaten
hirugarrentasunean
lehentasun izaten

Langilea:

Aste batean goizez
hurrengoan gabaz
eguna bukatzen dut
leporaino lanaz
nahiz eta gurako nukkeen
idatzi euskaraz
azkarrago ta hobeto
egiten dut erdaraz

Koroo:

Enpresaz enpresa
lana eta estresa
denbora ez dago salgai
guztiak dauka presa

Ikasi beharko dugu
baztertu ez gaitzaten
hirugarrentasunean
lehentasun izaten

3) Ikaslea

(Doinua: “Aita semeak”)

Koroo:

Nahiz handia den D ereduak
hartu duen abiada
zertarako da gero enpresa
eredu ez baldin bada

Ikaslea:

Enpresaritza ikasten nabil
ETEOn laugarrenean
ai moldatuko ote naiz gero
lantegi erdaldunean

Koroo:

Nahiz handia den D ereduak...

Ikaslea:

Ikasi ditut ibilgetua
eta marjina gordina
oi dudak ditut hau ez ote den
alferreko ahalegina

Koroo:

Nahiz handia den D ereduak

Ikaslea:

Eta datorren hilabetean
joango naiz praktiketara
ui hau problema arduraduna
erdalduna baldin bada

Koroo:

Nahiz handia den D ereduak...

4)

(Doinua: “atera, atera”)

Teknikaria:

Egunak pasa ahala
tristatu zait azala
lantegi arruntean
ez naiz normala
egun batzuetan
sentitzen naiz hala
zirkoko tximino bat
banintz bezala

(Oihua) Euskara Batzordea! Euskara
batzordea!

Euskara batzordea:

Helburuz helburu apuruz apuru
sendo ta seguru
euskarak gaitu gu
gu guztiongatik, datozenengatik
aurrera egin behar dugu

Gerentea:

Atxatu alafede
eta malkoak gorde
ez da erraza baina
ez gaude grabe
helburua garbi
daukagu halere
erronka zailtara
ohituta gaude

Euskara batzordea:

Helburuz helburu apuruz apuru...

Langilea:

Francoren errezeta
probatu nuen eta
ez dut bereizten hatxe
ese ta zeta
nahiz egon erreta
saiatuz kolpeka
eman behar diot
oraindik buelta

Euskara batzordea:

Helburuz helburu apuruz apuru...

Ikaslea:

Enpresa onenean
hasi naiz azkenean
zenbat lan egin zuten
iraganean!
euskara planean
urteen joanean
hargatik euskaraz
nabil lanean

Koroo:

Helburuz helburu apuruz apuru...